

“Sormena izan da nire bizitzaren hari eroalea”

Maialen Gurbindo “Chica Sobresalto”

Chica Sobresalto da Maialen Gurbindo (Atarrabia, 1994) nafartarraren *alter ego* eta izen artistikoa. *Operación Triunfo* telebista-programako azken edizioko kideak maiatzean kaleratu zuen *Sinapsis*, bere bigarren diskoa, Dromedario Records disketxearen eta Love of Lesbian edo Sidonieren lanak ekoitzi dituzten Santos & Fluren ekoizleen eskutik. Madrilen hitzartu du ARGIA bere ibilbideaz solasteko.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID FERNÁNDEZ

Hasteko, garrantzitsuenak: zer moduz zaude?

Ongi nago. Terapia hasi dudanetik, hobeto. Baina dena oso arraroa izan da. Beti diot tren bat hartu nuela eta ez nintzela sekula bizitza normalera itzuli. *Operación Triunfo*tik atera nintzen mundu mailako pandemia baten testuinguruan. Erokeria bat izan da eta oraindik nire gorputza lurreratzen ari naiz.

Geroxeago solastuko gara *Operación Triunfo* saioaz. *Sinapsis* diskoaren aurkezpen bira bukatu eta pare bat aste geroago abiatu zenuen *Bailando raro* bira.

Oso pozik nago. Egia erraten badizut, ideia zen lehendabizi diskoa ateratzea eta ondoren bira egitea. Baina, bat-batean, toki desberdinetatik deika hasi ziren eta azkenean kontzertu gehiago egitea erabaki genuen: Zahara eta Lola Indigo baino lehen aritu izan gara oholtzan, eta esperientzia sekulakoa izan da.

Instagrameko post batean aipatzen zenuen hainbat kontzertu antolatzeke izan zenituzten oztopoak. Zergatik?

Bai. Adibidez Iruñean kontzertu bat egin nahi genuen, etxea delako guretzat. 500 lagun toki batean sartzeko aukera bakarra Zitadelan zen eta han kontzertu bat egiteko zailtasunak gizapetikoak ziren. Tokia topera beteta ere ez da errentagarria. Taldekideekin solastu nintzenean erran zidaten nahiago zutela kontzertua egin eta ez kobratzea. Banekien dirua galduko nuela, baina Iruñean abestu nahi nuen, nire lagunak gonbidatuz. Eta egin genuen. Baina zaplazteko itzela jaso genuen. 500 lagun baino gehiago sartu ziren azkenean eta 2.000 euro galdu nituen. Hori behin egin dezakezu bakarrik.

Zer dira zuzenekoak zuretzat?

Adrenalina. Nirekiko mendekua. Arraroa da, baina bizi ditut Chica Sobresaltok Maialeni hartzen dion mendekua bezala.

Eta horrek sekulako adrenalina sortzen dit. Zorionekoa sentitzen naiz.

15 urterekin idatzi omen zenuen zure lehendabiziko kanta.

Bai, *Begiak itxita* izena jarri nion. 14 edo 15 urte izanzen nituen. Chica Sobresalto aurkeztu genuenean nahasketa moduko bat egin genuen nire lehendabiziko abes- tiekin eta Youtube-n entzungai dago.

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Tira, desberdina sentitzen nintzen... Gogoratzen dut nire lagunak zerbaitetan jokatu nahi izaten zutela eta nik bakarrik egotea nahiago nuela. Edo jolas bat egiteko taldeak egiten zirenean azkena gelditzen nintzen beti; normala, denak nagitasuna eragiten zidan. Ez nintzen erabat eroso sentitzen, orokorrean. Eta nire gauzarik kuttunena zen etxera joan eta Pocahontas-en panpinarekin istorioak asmatzea. Etxean egon nahi nuen beti.



Sentipen horiek gerora ere sentitu dituzu?

Egia erran, pixka bat bai. Lagun gutti ditut, baina ditudanak betirako lagunak dira. Harreman sakonak ditut, baina ez naiz sozialegia. Sarri estutzen naiz...

Musikak zein toki izan du emozio horiek kudeatzeko?

Hain zuzen ere, nire psikologoarekin solastu naiz azkenaldian horretaz. Eta

atera dudan ondorioa da ttikitan Poca-hontas-ekin sormenari tokia uzten nion bezala, hazten joan nintzen hori musikarekin ordezkatu nuela. Berdina sentitzen dut, behintzat. Sormena izan da nire bizitzaren hari eroalea: mundua ez zait gustatzen, beraz, alternatibak asmatzen ditut.

Sortzaile bezala krisi garaiak dituzunean zerk laguntzen dizu?

Azken krisia duela gutti bizitu dut. *Ba-sandere* kenduta, urtebetean ez nintzen gai izan abesti bat bukatzeko. Hainbat hasten nituen, baina bukatu gabe utzi. Une hartan Veintiuno taldeko Diego deitu nuen eta harmonia eta piano klaseak ematea eskatu nion. Krisiak ditudanean bertze tokietan bilatzea ezinbertzekoa iruditzen zait eta niri horrek lagundu dit ikaragarri. Bat-batean bertze musika tresna bat hartu eta gauza interesgarri anitz suertatu dira.

Langilea eta tematia zara, horrek ere lagunduko dizu.

Okerrena da duela gutti arte ez naizela kontziente izan hain langilea nintzenik! Nire psikologoak ikusarazi dit. Ikastolan bortzak ateratzeko ikasten nuen baka-rik, eta ondorioz, desastrearen fama izaten nuen. Noski, ikastea ez zitzaidako interesatzen. Eta nik denbora luzez pentsatu izan dut haizeak mugitutako paper bat nintzela. Orain argi dut ezetz. Langilea eta iraunkorra naiz, erabat.

Denbora honetan guztian babestuta sentitu zara?

Egia erran, ikaragarri. Bai *Operación Triunfo* aurretik inguruan nuen jendea-rekin, eta baita gerora ezagutu ditudane-kin ere. Polita izaten ari da.

Buelatu gaitezen *Operación Triunfo*. Esperientzia hori hiru sentipenen bitartez deskribatu beharko bazenu, zein aukeratuko zenituzke?

Batetik, nerabezaroa: gaztetxoa nintzela hasi nintzen lanean eta bat-batean ga-rai hartara itzuli nintzen saioan sartu nintzenean; esnatu eta gure ardura ba-karra zen musika egitea, janaria mahai gainean aurkitzen genuen. Bestalde, surrealismoa: oso jende guttik bizi-tzen duen esperientzia bizitu dut eta, askotan, pelikula batean egon izanaren sentsazioa izan dut. Eta, azkenik, dese-rosotasuna: bertsioak egitea ez da nire habitat naturala, dantza ere egin behar nuen, ausazko arropa batekin eta nire buruarekin identifikatuta sentitzen ez nuen makillajearekin... Eta azken hori zen niretzat okerreana, niri berdin zitza-i-dalako epaileak zer erraten zuen.

Aldiz, normalean hori izaten da partaideen ardura nagusia, ezta?

Bai, baina niri berdin zitzaidan. Nik sor-tutako abestien inguruko balorazioa

egingo balute, seguraski axola izango lidake. Baina argi nekien saioa ez nuela bide horretatik jarraituko, beraz, berdin zitzaidan.

Maiz aldarrikatu duzu nahi duzuna egiten duzula. Zenbateraino da bateragarria hori *Operación Triunfo* berezkoak dituen muga eta arauekin?

Tira, ez dut uste hainbertze arau dau-denik. Ordutegiak errespetatu behar dituzu, bai; klaseak, eta antolakuntza definitu bat dago. Baina nik hori izugarri gustuko dut. Alde horretatik, bikain. Gero, egia da, adibidez, *Oxitocina* ekoiztuko zutela erran zidatenean, niri galdera anitz etorri zitzaizkidala bat-batean burura: noiz? nola? Beraz, eurekin solastu nintzen eta erantzuna bikaina izan zen: nahi banuen bakarrik egingen zela.

Baina kontratu baten bitartez sartzen zarete saioan, ez?

Bai, eta egia erran, beti errana zidaten telebistan muga anitz daudela. Baina zintzoki, nik egin dut egin nahi nuena. Gero, ilusio handia egiten zidan zuzeneko banda batekin jotzeak, eta hori oparitu zidaten. Hori bai, izendatu nindutenean nire kanta bat abestu nahi nuen eta hori ez zidaten utzi. Horrek bai mindu ninduen, eta gorroto pixka bat dut [irriz]. Baina gainontzeko guztia bikaina izan da. Kanpotik ere agerian gelditu da nahi izan dudana egin dudala beti.

***Operación Triunfo* estigmatizatuta dagoela erranen zenuke?**

Bai, niri batek baino gehiagok galdetzen zidan erran behar nuena arautzen ote zuten, adibidez. Eta nik beti erantzuten dut berdina: uste duzue niri zer erran behar dudana mugatuko balidate erran izanen nituela bota nituen astakeria guztiak? Otorduetan tauromakiaren gaia ateratzen zen, eta nik kritikatzan nuen. Feminismo interseksionalaren inguruko eztabaida ateratzen zela? Nik beti erran nuen pentsatzen nuena...

Zer izan da zuretzat *Operación Triunfo*?

Sorpresa handi bat. *Castingera* joan nintzen, eta bertan nintzela frogak pasatzen joaten nintzen heinean argi nuen hori ez zela nire tokia. Eta, bat-batean, finalera, 0 galara... "Amatxo maitea, zer egiten dut nik hemen barruan?", galdetzen nion nire buruari... Bertzetik, ikasteko sekulako aukera ere izan da. Nik banekien nola egiten nuen musika eta zer nuen



gustuko. Hain burugogorra naiz, bertatik atera eta irekitzea kostatzen zaidala. Eta zentzu horretan pila bat ikasi dut.

Zer erran nahi duzu zehazki?

Adibide bat jartzeko: Nia [*Operación Triunfo*ko partaidea] uste dut dela nire profilaren kontrakoa. Nirekin inolaz ere bat egingo ez lukeen pertsona bat zela uste nuen, eta bat-batean sekulako konexioa izan dugu. Horrek lagundu dit perspektiba gehiago izaten.

“Denbora luzez
pentsatu izan dut
haizeak mugitutako
paper bat nintzela.
Orain argi dut ezetz.
Langilea eta iraunkorra
naiz, erabat”

Aurten *Operación Triunfo*ko hogeitau urte bete ditu. Lehendabiziko edizioaren inguruko dokumentala publikatu zuten. Osasun mentalaz irekian solastu ziren partaideetako aunitz, saioak emozionalki eragindako astindua azaleratuz. Nola bizitu duzu zuk?

Tira, ni oroitzen naiz goizetan esnatzen nintzela eta non nengoen ere ez nekiela. Gainera, konfinamendua tarteko, akademiatik atera behar izan ginenean ni etxetik aldatu nintzen eta paranoia izan zen. Sekulakoa.

Nola kudeatu duzu?

Psikologia karrera ikasten hasi nintzen, eta oroitzen naiz ikasitako teoria batez: egiaztatzen zuen kaiola baten barruan zeuden arratoiei zerbait erakusten zieten, eta bat-batean, kaiolaz aldatzen zituztenean, gauza horiek aldatzen zirela. Eta nik ere kaiolaz aldatzeko beharra sentitu nuen, reset egiteko. Nor nintzen ikasten hasteko beharra nuen. Horretaz aparte, terapia ezinbertzekoa izaten ari zait: duela gutti hasi naiz bi bizitza horien arteko bereizketarik ez egiteko kontzientzia hartzen. Hil nintzen eta berpiztu nintzen sentsazioa izan dut denbora luzez.

Kaiolaz aldatzeko Madril aukeratu zenuen bizitoki. Nola hartu zaitu hiriak? Ikaragarri ongi. Nire ongizate-eremutik atera nintzen, hiri handi batean. Hau da inoren hiria eta, aldi berean, guztiona. Jende arraroa ezagutu dut, ni bezala galduta dagoena, eta zalantzarik gabe identifikatuta sentitu naiz.

Izan ere, saiora iritsi aurretik zu ez zinen musikatik bizi, ezta?

Garbiketa lanetan edo haurrak zaintzen

aritzen zen neska gazte bat nintzen *Operación Triunfo* sartu aurretik, eta asteburuetan gitarra hartu eta dirua irabazteko mugitzen nintzen handik hona. Telebista saiotik atera nintzen nortasun krisi itzela izan nuen. Proiektu baten burua nintzen, autonomia, eta gauzak nola egin nahi nituen erabakitzeke denbora behar nuela ikusi nuen, argi eta garbi: jende pila bat ezagutzen hasi nintzen, bestetara gonbidatzen ninduten... Musikaren industria oihaneke legearen gisakoa da, eta nik beharra nuen erdibideko puntu bat aurkitzeko, musikaren industrian bizirauteko. Sekulako astindua izan zen. Ezetz erraten eta nire proposamenak egiten ikasten hasi naiz. Norbaiti gustatzen ez bazaio, sentitzen dut.

Zein da gakoa hori lortzeko?

Ez dut aurkitu oraindik. Are gehiago, hemendik bortz hilabetera alokairua nola ordainduko dudan ere ez dakit. Momentuz, hiru pertsona gehiagorekin bizi naiz Alcala de Henaresen. Tira, jendea harritzen da dirurik ez dudala erraten dudanean... Nire ardura nagusia da taldekideak zaintzea. Orduan, pausoz pausoa. Baina bai, momentuz kamikazea

naiz eta bidean printzipioak ez galtzeko ahaleginetan nabil. Ez dakidana da hori jasangarria den ala ez. Nik oraindik ez baitut toki finko bat industrian... Daukadana da *Operación Triunfo* ateratzen zarenean duzun oihartzuna, eta hori ameskeria da. Ni lanean ari naiz ameskeria hori errealitate bihurtzeko. Baina lortuko dudan oraindik ez dakit.

Saioak hogeit urte bete ditu aurten, eta edizio gehienak Espainiako telebista publikoan egin dira. Aldiz, duela urte pare bat arte ez da abestirik aditu galizieraz, katalanez edo euskaraz. Zer deritzozu?

Tira, bazen garaia! Horregatik, Ane [saioko partaidea] eta niretzat sekulako sorpresa eta ohorea izan zen euskaraz abestea. Ardura handia sentitu genuen, hori bai, euskaldunok dugun *malalaxearekin* [irriz]. Baina ilusioa sekulakoa izan zen. Beranduegi izan da, bai, baina garrantzitsua da egin dutela.

Zure bandaren aldarrikapena egiten duzu beti. Orain Madrilen bizita, nola moldatzen zarete?

Urte bakar batean 30 mila kilometro egin ditut kotxez; zehazki, 2005eko

Mazda 3 batean. Txantxak alde batera, eurek nire ahotsa grabatuta dute eta astean bitan entseatzen dute. Ni hila-betean behin joaten naiz, eta batzuetan aste oso batez geratzen naiz eta intentsiboa egiten dugu. Gainera, zuzenekoak ditudanean Murphy [txakurra] gurasoen etxean gelditzen denez, moldatzen gara.

Pandemiak ahulenak zigortu ditu gogorren. Aldiz, zure loraldia kulturaren unerik beltzenean ematen ari da.

Erabat. Profesionalki momenturik one-na bizitu dut inguruko artista guztiek okerreza bizitzen ari diren bitartean... paranoia bat da.

Arduradun politikoek kulturen egin dituzte murrizketarik handienak.

Zer deritzozu?

Tira, uste dut sortzaileek erakutsi dugula kultura segurua zela. Beti erran izan dut: erabat harro nago nire ogibideko lagunez, ikaragarri ongi egin dugulako. Orain buelta eman behar zaio; aretoetako langileak, argi eta soinu teknikariak, argazkilariak... industria handia da eta errekeruperatzea gogorra izanen da. ●

Urtarrilekoa. kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.